

# Ezusteko bidaiariak



Olerkiak

## 1.- Gaueko hiria zen

Poetak bizitzari beldurra,  
filosofoak oldarra.  
Aingeruek hegala bai,  
hegan egiterik ez.

Dena ikusi nahi nuen  
eta oihal iluna jautsi zen.  
Hiri handiaren gainean,  
mundu osoa ere estaltzen.

Altxatzeko oihal astuna,  
beso biekin jasotzen.  
Bazirudien iheska negua,  
aro beltzagoa zabaltzen.

Berdin dio, hara goaz,  
grina ez da lasaia.  
Atzera itzultzean  
badugu bizigaia.

## 2.- Hainbeste galdu genuen

Etorkizun urrunean,  
are urrunagoan,  
zientzialariek hiltzeko joera izango dute ere:  
ohe bakartietan hiltzeko nahia,  
infinitu guztiak biltzen dituen infinituan,  
predikatzailiek planeta eta galaxietan  
ustezko jainko lurтарren dotrina  
azaltzen duten geroko denbora hotzetan.  
Baina garai ezegonkor honetan bizi garenok  
esku artean dugu oraindik  
paperezko liburu horiztatuetan  
orduko metropolira joandako poetaren agiria.

Lana dugu gero bakoitzaren hirian kokatzen  
irakurri ditugun hitz hunkigarriak,  
baina neuk esan nahi nuena galdu dut bidean.  
Gogoratu ezazue fikziozko izen bat,  
Robert Frobisher esaterako,  
eta maitemintzen ez denak esan dezala ozen.

Hainbeste bizitza zuri beltzean,  
horrenbeste gris koloreztatuak hirian,  
hainbat galdu genuena.  
Eraikin bat ikusten nuen  
panoramika itsusten zidana,  
ah, gero esan zidaten forma solido mugikorrak  
ametsetan iltzatzen zizkigun artistak  
egindakoa zela, garaiz kanpo –niretzat–.  
Lekuz kanpo egon gara hainbestetan  
gertatzen ari zenarekiko itsu.  
Galdu dugu ikusmira, galdu perspektiba,  
musikari zaharrei laguntzeko gaiztakeria.  
Ah, baina haren adiskideak izan ginenok  
amaiera tristeagoa izango dugu gero  
mundu hobeak bilatzeko ahalegin galduan.

Angelu bat zeruaren kontra,  
hori baino gauza ederragorik ez da.

### 3.- Jainko hilezkoak

Etxe gaineko terrazan izarrak gau beltza  
doinu bat, bakarrik nago,  
kaleko argiek zuri espektrala atari leihoetan

Bi lerro azpimarratuta orrialde bikoitietan  
aldatu beharra, bakarrik gaude,  
federik gabeko paranoia alkoholetan bustia

Sutondora itzuli nintzen azken neguan hotza  
bizitza, lur azpitik irteten,  
koloretako erregeak nire aurpegian zaplaztekoa

Jainkoek ez ziguten maitatzeko eskubiderik  
eman, ez baitzekiten sorreran  
lapurtuko geniela ezjakintasunaren xalotasuna

Espektro hutsalak dira herioaren bila ezinezkoan  
ordutik, bakarrik daude,  
maitatzeko eta hiltzeko gure ahalmenaren xerka

#### 4.- Barne mundu ezkutua

Bailara osoa lainotzen hasi da,  
gure bazterrak, eta gure baitako bazterrak ere,  
diskrezio gabeko begiradetatik ezkututzen.

Eskerrak burutik pasatzen zaiguna,  
burmuinean sortzen ditugun ideia eta pentsamenduak,  
hor gelditzen direla, neuronek helduta.  
Zenbaitetan guretzat ikusezin,  
baina besteentzat betiere eskuraezin  
guk atea zabaltzen ez dieguneino.  
Zer izango litzateke mundu guztiaren aurrean,  
agerian geratuko balira gure usteak,  
gogoetak, maitasun-gorrotoak?  
Nolakoa litzateke gizartea, nolako gutako bakoitza,  
barruan gordeta ditugun hausnarketak,  
bat-bateko burutazioak, epe motzeko edo luzeko asmoak,  
sentipen intimoenak,  
den denak besteen aurrean  
trabarik gabe ikusgai egongo balira?

Gure bazter miresgarriak  
lainotu egiten ditugu,  
geu besteengandik babesteko,  
aurrera egin ahal izateko, bizirauteko.

## **5.- Denboraren tunelean**

Karezko harrien azalera gris pikorra  
dira gaurko hodei neurrigabeak,  
haien azpian argi erdi opakoa  
erortzen da metalezko harien antzera.

Begiak zulatu ditu izpi solidoak  
urruneko gailur ahaztuak ikusteko,  
etorkizun epikora ginderamatzan  
bide urratuaren tunelaren ildoak.

Gailurren bestaldean, itsas portuan  
aparraren kresal gatzatuaren artean  
aterpe hartu genuen iluntze aldera.

Elkarren ondoan etzanda ametsetan  
geroa izango zenaren biltze lanean  
astun iltzatu zitzaidan arima betea.

## 6.- Labana gurituaren ezina

Burdinolako ingudean  
errementariak indarrez baina lasai  
landutako eskulanen artean,  
aizto, labana, ezpata, sastakai, eztenak.

Urrezko txanpenez ordainduta,  
labana jauregira ekarria,  
kotoizko zapiaren gainean eder,  
bitrinaren erdiko arasan.

Labanaren altzairuzko xafla  
–mehatxu eta distira bere leuntasunean–,  
ustekabeen bigundu da,  
Dalíren erlojuen antzera.

Zeregin eta helbururik gabeko  
arma alferrikakoa,  
inoren bihotzera iristeko ezgai,  
bularren artean guritua.

Hala, haren bihotzera heltzeko  
ezintasun zabarra,  
lorategi erdiko iturriaren ondoan  
bi hitz galant esateko nagikeria.

## 7.- Harri, lore, aire

Etxera datorren bidean mendia eusteko murrua,  
pareta-belarra, bitxiloreak, sasi-sastrakak;  
landareek jaten dute dena kale ondoko oihan txikian.

Bi neskatilek daramate kuia berde handia:  
zuhaitz artean txanogorritxu bakarra ez,  
bi ahizpa dira elkarren ondoan, amonarenera.

Uda hondarreko egunen azken argia desagertzen  
mendebaldean, itsasoko lanbroa sartzen den lekuan  
bihar arteko bizitzaren izpiak berarekin eramanez.

Gorosti-lore ximel bat hartzen dut murraren gainetik,  
bi harri koskor bidearen ezkerreko ildo lehorretik  
eta airea, biriketara, arratsalde gorri honetatik.

Idazmahaiian harri koskorrek argi propioa iluntzean,  
lore ximela belusezko iturri zuria sukaldeko txokoan,  
eta airea, arina, garbia, antsietatez jaso, orain

gau hezearen iluntasunari ordainetan itzulia.



## 8.- Orduak

Kristalezko kopa fin hauskorrean  
behatzak musika borobila,  
Dalloway anderearen etxean  
loreontziak irudi birakorrak,  
liburuaren orrialde higituetan  
begiradak zulo beltz iheskorra,  
eta idazlearen soineko koloretsuan  
ezinegonak ikara dardartia.

Orduak pasa nitzake  
orekaren bila dabilen soinua entzuten,  
joan-etorri errepikatuetan txunditua,  
heriotza,  
abandonua,  
negar lehorra  
ulertu gabe,

Hogei urterekin kristalezko koparen musikak  
liluratu ninduen,  
beste mundu batera eraman.  
Berrehun mila ordu beranduago  
sukalde ondoko errekaeren doinuak  
alderik alde zeharkatu zidan bizitza,  
mundu honetara ekarri.  
Eta orain jakin berri dut, orain!  
musu berean doazela  
negar lehorra,  
abandonua,  
heriotza.

## 9.- Ezusteko argonautak: Bidea

Noiz ekin genion? Hastapenean,  
metropolia utzitakoan,  
urtaro beltz ilunean,  
zerbaiten bila, agian,  
zerbait ahazteko zorian.

Orduan ere, ibaietako urak jelatu ziren bat-batean  
eta gure bideko ihintza, hormatu.  
Kris-kras errepikakorrak lirateke gure urratsak,  
eman ahal izango bagenitu,  
baina zero argitsuan desagertutako hegazkin batek  
utzitako lurrinezko arrastoaren antzera,  
gure oinetakoen aztarnek  
jarraikortasuna galdua zuten.  
Etena zen segida, modu saihetsezinean.

Zeren, etxea urrun zegoen oraino:  
egongelako epeltasuna,  
apalategiko liburuen ilara isila esku dardartien zain,  
sutondoko besaulkian esertzeko asmoa,  
irakurgaia eskutan leihotik sartzen den argipe lausoan.  
Zeren etxea, urrunean,  
utopia erakargarria besterik ez zen artean,  
oinak lurrian iltzatuta,  
eguzki errukigabearen erradiazioak  
azala erretzen zigun unean.

Eta hotza, eguzkipean ere, hotz ankerra.  
Mina zerion hotza, guri itsatsia,  
hotza larru ahulean, hotza barnean.  
Haran zurituaren gailurretatik erauntsian,  
urtegia lehertu eta handik eskapoan  
irtendako ur menderaezina balitz bezala,  
haizeak kolpatzen zituen  
zuhaitzetako adaxkak, sasietako hosto lehorrak,  
elur artean herabe  
tarteka irten ziren belar aleak.  
Landare atalek ezin eutsirik ia  
bafada izoztuaren indarra,  
hala gu, zutunik egoteko ezgauza,  
oinaze bortitzari amore emanez  
eskuak lurrera boteaz.

Irudi bat, gogoan;  
helburu baino, oroimen,  
metropolitik zelaira ekarritako larrimin ohikoa.  
Oztopo, aurre egin beharreko hesia,  
burmuinean eskegitako hilotza.

Bakardade partekatuan  
helduleku bakarra,  
epeltasun ametsezkoa,  
lasaitasunerako grina,  
esperantza apur bat,  
desio bete ezina.

Bost minutuko tartean, urduri,  
erabakitzeko beharra egokitu zitzaigun, nahitaez.  
Osotasun zurian osagai,  
betiko erori zerraldo,  
ala nagia uxatu, hozmina,  
nekea eta utzikeria,  
tentetu, luzatu eta esan  
bakoitzari besteak: aurrera.  
Atzera hasi baikinen,  
oihuaren arrazoia baino lehen,  
alda dezagun bidea, aldatu jomuga,  
goazen bada etxera, goazen gelara,  
ez diezaigun ezkuta bakardade gorria  
haize hotz, temati, nekaezinari.

Baina geldirik jarraitu genuen, badaezpada,  
pixka bat, beldurrez agian.  
Itxaroten zerbait,  
itxaropen izpi batek asmoak argitzea,  
erabaki irmoak hartzeko indarra.  
Ez da erraza zenbait leku abandonatzea  
eta horregatik sortu zitzaigun aurrean  
ur bero sulfurozko putzua,  
bertan gera gintezen,  
azken gau bat igaro genezan  
uretan kiskaltzen izarren azpian.

Gero ohartu ginen ordura arte  
atzekoz aurrera egindakoa  
ez zela zuzena:  
lehenik kausa, ondoren oihua behar duela.  
Eta ordurako oihu eginda ginen  
elurretan, haizetean, ur putzuan.  
Kausarik ez genuen bilatu behar,  
noizbait sortuko zen, iraganean,  
eta oihurik egiteko arrazoirik ezean,  
azkenik, beldur guztiak uxatuta,  
esperantza hari mehe batek bultzatuta,  
zelai erdiko etxera abiatu ginen,  
baso zuriak, brisara fina,  
gorroto izoztua,  
bakardade partekatua.

## 10.- Ezusteko argonautak: Zoriona

Beraz, han ginen, apurtu hondarrak leheneratzen.  
Buztin, beira, portzelana, zura,  
milaka puskatan, izandako eite galdua airean.  
Nola jaso, bildu, lotu, ilargiak zurbildutako mundu zatikatua?  
Zenbat ilargi ikusi genituen, bete,  
han eta hemen, metropoli ahaztuetan  
eta pagadietako hosto-adar artean?  
Eta orain gezurrezko argiak  
bakardade hitsa jo-puntu bakartzat zuen.  
Eta ilargiaren izpi ahuletan,  
milaka puska haiek dir-dir egiten,  
keinu bat bizirik geundenoi,  
poz izpi bat islatuta panpinaren begietan.

Itsasoan, olatuen gainean ere,  
lerro beltz zurien atzean,  
ilargi urrunaren distira ontzi baten ubera bezala,  
eta urrunagoko eguzki promesaren lehen zantzua  
ortzi-mugatik gora.  
Beldurra bakarrik eroria labarretik behera  
arroken aurka desagertua,  
eta belardietako hirusten azpiko itzala  
lore berrietarako aterpe bihurtua,  
hori zen naturaren bilakaera,  
eta gure barne-indarraren aldaera.

Zenbat lerro alperrik galduak  
egongelako lanpara hautseztatuaren ondoan,  
leihoetako errezeletik behera isurtzen ziren printzetan.  
Kaiera erdi betea zegoen,  
baina ebanozko apaletan libururik ez zen geratzen,  
den dena kopiatuta genuen gure orri behin zuri orain horiztan.  
Asmatu nahi izan genuen ere hiri handietako mekanismoa,  
jaso genituen eztanda bolkanikoen laba eta landaredi osoa,  
disekatu genuen ukuiluko teilatura zetorren hontza grisa.  
Bilatu genituen arrazoiak,  
zurrunbiloetako mugimenduen ondoko bareak,  
geruzen arteko hondakinak.

Musika geratzen zitzaigun, maitea,  
doinu zahar baten oihartzuna,  
mendi elurtuek itzultzen zigutena.  
Hitz batzuk oraindik esan barik  
orekarik gabeko bizitza honi eusteko.  
Txantxangorriaren hegaldi azkarraz gozatzeko plazera,  
hamahirugarren atal bat  
astiro datorrela aurreikustea,  
ilunaurre berri baten kolore sorta ederra.

Etxea bera ere, epeltasun eroso,  
baztergarria genuen, utopia zelako,  
nahikoa zitzaigun hitz bakarra, irribarre isila.

Guztiaren kausa topatu nuenean  
oihu denak isildu ziren bat-batean.

Zuhaitzen adarrek itzala iruten zutela,  
zerbait esateko nahia piztu zitzaidan,  
ai, ez nuen uneko magia usteldu nahi izan;  
haizearen xuxurla leunari arreta jarrita,  
hor geneukan zoriona,  
besterik gabe, inguruan,  
hau zen dena, zure eskua nirean.

# Ezusteko bidaiariak

- 1.- Gaueko hiria zen
- 2.- Hainbeste galdu genuen
- 3.- Jainko hilezkorrak
- 4.- Barne mundu ezkutua
- 5.- Denboraren tunelean
- 6.- Labana gurituaren ezina
- 7.- Harri, lore, aire
- 8.- Orduak
- 9.- Ezusteko argonautak: Bidea
- 10.- Ezusteko argonautak: Zoriona

